



Kurtso hasiera

Guraso agurgarriok,

Ongi etorri *Quick Minds*-era!

Quick Minds Lehen Hezkuntzako sei urteetarako sei nibeletako ingeleseko kurtsoa da. Haur Hezkuntzan ikasitako ingelesari jarraipena ematen dio, eta Espainian dauden Lehen Hezkuntzako ikastoletako ingeleseko hizkuntzaren irakaskuntzarako kurrikulumari jarraituz garatu da.

Ikasturte honetan, zuen seme-alabak *Quick Minds* 5-ekin ikasiko du ingelesa. *Quick Minds* 5, natur zientzien klase batean hasten da, non ikasleek, *Time Travellers*-ak ('denboran zehar bidaiatzen duten bidaiariak'), Alex, Phoebe eta Patrick, ezagutuko dituzten. Beraiekin batera, abenturak bizitzeko, denboran zehar bidaiatzeko eta historiako momentuak ikusteko aukera emango dioten misteriozko ate bat zeharkatuko dute.

Denboran zehar bidaiatzen duten bidaiarien **istorioekin** ongi pasatzen duten heinean, hainbat **trebetasun** eta **hiztegi** eta **gramatika baliagarria** ikasiko dute, eta baita hainbat kantu **dibertigarri** ere.

Zuen seme-alabaren ingelesa etxetik ikasteko esperientzian parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. *Quick Minds*-ek online dituen jarduera interaktiboekin egin dezakezue, www.quickmindsapps.es orrialdea bisitatuz. Bertan, familian jolasteko **hiztegi eta gramatikako jolas interaktibo dibertigarriak** daude. Abesti eta istorioak online ere eskuragarri daude. Horrela, edozein unetan abestiak abestu eta istorioak ikusi eta entzun ditzakezue.

Espero dugu *Quick Minds*-en ingelesarekin zuen seme-alabak bezain ongi pasatzea!





Welcome The Science lesson gaia

Guraso agurgarriok,

Ikastarorako sarrera unitatean (*Welcome Unit*), *The Science lesson*, zuen seme-alabak **10etik 100erako zenbakiak** eta **familiako partaideak** berrikusiko ditu. Bere trebetasunei buruz hitz egiteko **'good at'** erabiltzen ikasiko du. Ikasitakoa online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** praktikatu dezake.

Zuen seme-alabak, denboran zehar bidaiatzen duten, Phoebe, Alex eta Patrick, ezagutuko dituzte. Eska iezaiozue *Time Travellers* **abestia** abesteko eta guztiok batera **karaoke** bertsioa abestu.

Ikasgai honetako **istorioan**, *The explosion*, zuen seme-alabak *Time Travellers*-en lehenengo abentura nola hasten den irakurriko du, natur zientzien klase bateko leherketak denboraren tunela zabalduko duenean, hain zuzen. Galdetu zuen seme-alabari pertsonaien inguruan: Phoebe, Patrick y Alex. Zelakoak dira? Zein gauza egiten dituzte ondo eta zeintzuk ez?

Ongi pasatzea espero dugu!



1 gaia The rock 'n' roll show

Guraso agurgarriok,

1. gaian, *The rock 'n' roll show*, zuen seme-alabak **irakasgaiak** ikasiko ditu. Horrez gain, **egiten gustatzen zaiona eta gustatzen ez zaionari** buruz hitz egiten, eta **betebeharra** azaltzen ikasiko du. Ikasgaiak ikasitakoa online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** berrikus dezake.

Galdetu zuen seme-alabari zein irakasgai gustatzen zaizkion. Eska iezaiozue eskolako **abestia** abesteko, edo guztiok batera **karaoke** bertsioa abestu.

Irakasgai honetan zuen seme-alabak **Elvis istorioa** irakurriko du, non Alex, Phoebe eta Patrickek Elvis Presley ezagutuko duten. Galdetu nola laguntzen dioten umeak Elvisi bere zaleengandik alde egiten.

Bukatzeke, **Act out** irakasgaiak, zuen seme-alabak esaldi baliagarriak ikasiko ditu, eta eskolako ikasle berri batekin elkarriketa bat antzetzuz, bere hitz-jarioa hobetuko du. Galdetu zuen seme-alabari zer gogoratzen duen elkarriketatik. Zer gustatzen zaio beste umeari? Zein da berak gustuko duen irakasgaiak?

Ongi pasatzea espero dugu!



2 gaia The story teller

Guraso agurgarriok,

2. ikasgaian, *The story teller*, zuen seme-alabak **emozioak deskribatzeko izenondoak** ikasiko ditu, eta sentimenduei buruz ingelesez galdetzen ikasiko du. Talde txiki batean, arazoei buruz hitz egingo du eta **'should'** eta **'shouldn't'** erabiliz aholkuak ematen ikasiko du. Ez ahaztu online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabiltzea!

Eskatu zuen seme-alabari *What's the matter with you?* irakasgaiko **abestia** abesteko. Horrez gain, abestiko umeen sentimenduak antzetzu ditzakezue.

Time Travellers-en **istorioan**, Phoebe, Alex eta Patrick Ingalaterrara doaz Shakespeare ezagutzera. Galdetu zuen seme-alabari ea nor den Shakespeare. Istorioko umeek zer eskatzen diote Shakespeare-ri bere obran aldatzeko? Zernolako erreakzioa izan du publikoak amaiera berriaren aurrean?

Bukatzeko, zuen seme-alabak **poesiari** buruz ikasiko du, eta ingelesez poemak irakurriko ditu. Galde iezaiozue zein den berak gustuko duen poesia eta zergatik. Eskolan bere poesia idatziko duenez, eskaiozue erakusteko.

Ongi pasatzea espero dugu!



3 gaia In Istanbul

Guraso agurgarriok,

3. ikasgaian, *In Istanbul*, zuen seme-alabak **hiriko toki** desberdinen inguruko hiztegia, **lekuzko preposizioak** eta **helburu formaren infinitiboa** ikasiko du. Mapa batean eraikinak non dauden deskribatuko du. **Hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabili irakasgai honetako lezioak berrikusteko.

Galdetu zuen seme-alabari ea berarentzat zein den hiriko tokirik gustukoena. Polikiroldegia? Liburutegia? Animatu zuen seme-alaba irakasgaiko **abestia** abestera, edo gehiago dibertitzeko, guztiak batera abestu **karaoke** bertsioa!

Galdetu zuen seme-alabari Patrick, Phoebe eta Alex nora doazen irakasgai honetako abenturan. Zer gogoratzen dute Istanbulerantz? Nor galtzen da? Nork laguntzen die Patrick eta Alexi Phoebe aurkitzen?

Azkenik, **Act out** irakasgaian, zuen seme-alabak helbideak eskatu eta emango dituen elkarrizketa bat antzeztuz, bere hitz-jarioa hobetuko du. Zuek ere, hiriko bisitari edo egoiliar zaretela eginez, etxean zuen elkarrizketa antzeztu dezakezue.

Unitatean ongi pasatzea espero dugu!



4 gaia **Mystery at sea**

Guraso agurgarriok,

4. gaian, *Mystery at sea*, zuen seme-alabak **itsasontzien** eta **itsas izakien** inguruko hiztegia ikasiko du. Horrez gain, **there was eta there were** adierazpen eta galderetan erabiltzen ikasiko du. Desagertzeko zorian dauden animalien inguruan ere ikasiko du. Galdetu zuen seme-alabari ea zer gogoratzen duen desagertzekotan dauden animalien inguruan. Bisitatu web orrialdea online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** praktikatzeko.

Irakasgai honetako **abestia**, *Fish, fish, everywhere*, entzun. Guztiok batera abestu **karaoke** bertsioarekin eta dantzatu!

Irakasgai honetako istorioan, *The Mary Celeste*, Alex, Patrick eta Phoebe itsasontzi batean daude. Galdetu zuen seme-alabari ea zer gogoratzen duen **istorioaren** inguruan. Zer aurkitu zuen Phoebek itsasontziko ganberan? Zer gertatzen zaie marinelei?

Azkenik, zuen seme-alabak **ozeano eta itsasoan** inguruan ikasiko du du. Ibai bati buruzko lan bat ere egingo du. Galde iezaiozue ea zein den itsaso eta ozeano baten arteko desberdintasuna. Zein da handiagoa? Zer egin daiteke itsasoak eta ozeanoak garbi mantentzeko?

Unitate honekin ongi pasatzea espero dugu!



5 Quick Minds

5 gaia Crazy inventions

Guraso agurgarriok,

5. gaian, *Crazy inventions*, zuen seme-alabak **gailuei** buruzko hiztegia ikasiko du, eta horrez gain, konparatiboak eta superlatiboak praktikatuko ditu. Tresna zoroak marraztuko ditu. Eskaiozue bere tresna deskribatzeko. Ez ahaztu unitatea erreparatzeko online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabiltzea.

Animatu zuen seme-alaba *My bike* **abestia** abestera. Esaiozue beren bizikleta abestian agertzen direnekin konparatzeko. Bere bizikleta zaharragoa edo berriagoa da? Politagoa da? **Karaoke** bertsioa ere erabil dezakezue!

Galdetu zuen seme-alabari ea zer gertatzen den irakasgai honetako *Professor Potts* istorioan. *Time Travellers*-ak orainean edo iraganean daude? Irakaslearen asmakuntzak funtzionatzen du? **Istorioko** asmakuntzek egiten dituzten gauzen inguruan hitz egin.

Azkenik, **Act out** ikasgaian, zuen seme-alabak saltzaile eta erosle baten arteko elkarrizketa antzetzuz, bere hitz-jarioa hobetuko du. Paperetako edozein egin dezakezue etxean zuen elkarrizketa antzetzeko.

Ongi pasatu!



6 gaia In the hospital

Guraso agurgarriok,

6. gaian, *In the hospital*, zuen seme-alabak **osasunarekin** zerikusia duen hiztegia ikasiko du, eta **simple pastean** dauden aditzak jokatuko ditu. Atzo egin zuenaren inguruan hitz egingo du gelakide batekin eta ikasitako hiztegiarekin mimika jolas bat egingo du. Irakasgaia erreparatzeko online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabil ditzakezue.

Irakasgai honetan, zuen seme-alabak *Oh what a week* **abestia** ikasiko du. Eska iezaiozue abestia abesteko. Zein gauza gertatzen zaizkio abestiko umeari? Ez ahaztu **karaoke** bertsioa erabiltzen!

Irakasgai honetako **istorioa** *A great discovery* deitzen da. Galdetu zuen seme-alabari ea nora doazen Alex, Phoebe eta Patrick, eta ea norekin aurkitzen diren. Zein da aurkikuntza?

Azkenik, zuen seme-alabak **elikadura osasuntsuaren** inguruan ikasiko du. Elikagai desberdinak ikasiko ditu eta astean zehar jaten duena ikusteko taula bat egingo du. Eska iezaiozue taula erakusteko eta gehiago jan beharko lituzkeen elikagaiak esateko. Zuek ere elikadura osasuntsuari buruz hitz egin dezakezue.

Unitatean ongi pasatzea espero dugu!



7 gaia Ancient Egypt

Guraso agurgarriok,

7. gaian, *Ancient Egypt*, zuen seme-alabak **herrialde** batzuen izenak eta **simple past-en ezezko** forma erabiltzen ikasiko du. Herrialdeen jolasera jolastuko du gelakideekin. Online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabil ditzakezue etxean praktikatzeko.

Kontatu zuen seme-alabari iragan urtean egon zen herrialdeei buruz. Zer egin zuen oportetan? Eta zer ez zuen egin? Irakasgai honetako oporterei buruzko **abestia** abestu. Ez ahaztu **karaoke** bertsioa online entzuteaz!

Aste honetako **istorioan**, *The mummy's tomb*, Patrick, Alex eta Phoebe, Egipton daude. Galdetu zuen seme-alabari ea zer gogoratzen duen istoriorik. Zeren beldur dira *Time Travellers*-ak? Patrick-ek zer ez luke egin beharko istorioan?

Azkenik, **Act out** ikasgaian, zuen seme-alabak bere hitz-jarioa hobetuko du museora joan nahi duenaren eta museoko langile baten arteko elkarrizketa telefonikoa antzetzuz. Galdetu ea zer gogoratzen duen elkarrizketatik.

Ongi pasatzea espero dugu!



8 gaia The treasure

Guraso agurgarriok,

8. gaian, *The treasure*, zuen seme-alabak **klima eta arropen** inguruko hiztegia eta geroaz hitz egiteko **'going to'**ren erabilera praktikatuko du. Hiztegia eta gramatika berrikusteko klimaren jolasera jolastuko du. Ez ahaztu online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastea!

Galdetu zuen seme-alabari ea *This week* **abestiko** umeak zer egingo duen superoporretan. Galdeiozue zer egingo duen asteburu honetan ongi pasatzeko. Guztiok batera abestu abestia, hiztegia eta gramatika lantzeko.

Azken irakasgai honetan, *Time Travellers-ak* irla batean daude, non piratak lapurtu duten altxorra ezkutatzen ari diren. Galdetu zuen seme-alabari ea zer egiten duten Alex, Phoebe eta Patrick-ek piratek irlatik alde egiten dutenean. Nori emango diote altxorra? Galdetu zuen seme-alabari ea kurtsoan zehar *Time Travellers-ak* bisitatu dituzten herrialde guztiak gogoratzen dituen.

Azkenik, zuen seme-alabak **urtaro eta hemisferioei** buruz ikasiko du. Kontaiozue uda eta negua ez datozela bat ipar hemisferioan eta hego hemisferioan. Eska iezaiozue munduko urtaroei buruz berak egindako lana erakusteko.

Ongi pasatzea espero dugu!





Kurtso amaiera

Guraso agurgarriok,

Ikasturte honetan, zuen seme-alabarekin batera *Quick Minds* 5-eko ingelesa etxetik landuz ongi pasatu izana espero dugu. Eta era berean, online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastuz, istorioak ikusi eta irakurriz, eta abestiak entzun eta abestuz gozatu izana.

Gogoratu, edozein unetan, gehien gustatu zaizkizuen jolas interaktiboekin jolastu, istorio bizidunak berriro ikusi eta gogokoen dituzuen abestiak berriz abestu ditzakezuela.

Bukatzeko, denboran zehar bidaiatzen duten bidaiariei: Phoebe, Alex eta Patrick-i, zuek agurtzea gustatuko litzaieke eta opor zoriontsuak opa dizkizuetel!

